



### **Distirak#5**

#### **Ohiane Iraguen**

Decirnos algo. [Gure buruari zerbait esatea.]

Beti galdetzen diot neure buruari zergatik egiten duen jendeak egiten duena. Hori mugimenduan dagoen zerbait bezala ulertuta, ekintzetan pentsatuz, zeinak (ia) beti gorputzarekin eta gorputzetik ondorioztatzen denarekin lotzen ditudan. Imogen Stidworthy-rekin egindako KINU saioan artistak esan zuen esaldi bat grabatuta geratu zitzaidan: "*Ahots bat ez da daukadan zerbait, egiten dudana zerbait da*".

Tailer-mintegi horretan, artistak proposatutako ariketa pare bat egin genituen; horietako bat zen ahotsa soinu bakar baten bidez ateratzea. Hitza saihestuz eta ahots bat beste batekin gainjartzen saiatuz, ahalegindu ginen bakoitzaren gorputzen soinu-aldaketak kudeatzen. Erreakzioak era askotakoak izan ziren. Niri dagokidanez, isilik geratu nintzen, entzunean bakarrik. Soinu bat ateratzeak ezinezko egiten zidan besteena entzutea, eta aditzera ematen zuen ahotsaren halako izaera intrusibo eta agian voyeurista bat (ez dut ezagutzen adjektiboa entzumenerako bakarrik). Era berean, nire isiltasunak aukera ematen zidan bakoitzak proiektatutako entzumen-esperientzian arreta jartzeko. Bitxia izan zen zarata zuri ia guturalaren sintesi moduko bati erreparatzea eta ahotsaren berezko zatiketa nabarmentzea; esanahirik gabeko soinu bat egitea, hizkuntzalaritzatik kanpokoak, eta barrutik ateratzea ahoa ia mugitu gabe (sortzen den tokian).

Stidworthyk bere lanetako asko erakutsi zituen, baina ahotsari buruzko kontzeptuak, ideiak eta hurbilketa teoriko desberdinak ere jarri zituen mahai gainean, horien artean Becketten aipamen bat:

*"... agian horixe naiz, mundua bitan banatzen duena; alde batetik, kanpoaldea, bestetik, barrua, xafla bat bezain fina izan daitekeena; ez naiz ez alde bat ez bestea, erdian nago, banaketa naiz, bi gainazal ditut eta lodiera bat ere ez; agian horretaz ohartu nintzen, ni*

*neu dardarka, tinpanoa naiz; alde batetik, gogoa, eta, bestetik, mundua, ez naiz inorena, ez didate niri hitz egiten, ez dira nitaz ari...”<sup>1</sup>.*

Becketten arabera, ahotsa da egitean gorputzetik bereizten den eta era berean adierazten den zerbait, daramatzen hitzen zentzuaz eta esanahiaz haraindi doan zerbait, bide desberdinetan irekitzen dena eta bere buruaz gehiago esaten duena sortzen duen erretorikak berak baino. Labellek<sup>2</sup> zioen bezala, ahots bat entzuteak aukera ematen digu jakintzaren eta sentitzearen artean ibiltzeko. Ahotsak ez du lodierarik, gorputzak berezkoa du eta aldi berean gorputzarekin zerikusirik ez duen zerbait da, badu bere tonua, bere tinbrea, bere azentua (bere kantaera), eta soinu baten analisi formaletik eratorritako guztiak; era berean, kulturaren konstruktuan bildu eta subjektibotasuna azaltzen du. Hizketa atzeraezina da. Behin gorputzetik irten ondoren, ahotsak agerian utzi eta interpelatu egiten gaitu. Ahotsa entzun egiten da eta egintza horretan behar gaitu. Harremanen esparrutik, ahotsa ateratzea da agertzea, eta, askotan, ez ateratzeak, absentsia horrek, haren presentzia erakusten digu. Azken finean, ahotsak ekinean jartzen ditu gorputzak eta afektuak.

Stidworthyk hainbat lan aipatu zituen. Horietako batean, [(.)] (2011-2012)“(.)”, Sacha Van Loo hizkuntzalariak, jaiotzez itsua den Anbereseko ahots-analistak, herritarrek poliziarri emandako testigantza telefonikoak aztertu eta ikertzen ditu. Van Look ekolokalizazioa erabiltzen du bere burua gidatzeko, irakurtzeko eta grabazio akustikoetatik abiatuta espazio eta ahots desberdinak interpretatzeko. Ahotsaren tinbrea, abiatzen den motor baten marka zehatza, pasatzen den auto bat edo dardaratzen duen hozkailu bat, grabazio baten atzean geratzen den guztia, atzeko zarata horiek guztiak dira Van Look bilatu eta deszifratu ditzakeenak. Berreraiki ditzake entzungai duen grabazioa egin den espazioak eta baldintzak, eta aztarnak eta pistak eman poliziak ikerketarekin aurrera egin dezan. Lan honetan artistak ikus-entzunezko pieza desberdinak erabiltzen ditu Van Looren entzumenean jartzeko, bere entzumen-esperientziara iristeko, hor bere interpretazioa «hizkuntzaren espetxea» izenekotik haratago baitoa.

Van Looren lanak gogora ekartzen dit entzute akusmatikoaren esperientzia, non soinua sortzen duen iturria ezagutu gabe entzuten den, gorputzik gabeko ahotsak entzuten diren, kausalitaterik gabeko soinuak. Desira eta esanahia tartean dira entzute-mota horretan. Entzute akusmatikoan, gure soinu-esperientziak baldintzatzen du entzundakotik harantz joateko bidea, eta soinu-ekintzak gainditzen ditu gorputza eta

---

<sup>1</sup> Samuel Beckett (1979). *El innombrable*. Trilogía de Beckett, 352. or.

<sup>2</sup> Brandon Labelle (2018). *Sonic Agency. Sound and Emergent forms of resistance*. Goldsmiths Press, 65. or.

itxuraz esateko duen gogoia. Entzundako ahotsa ez da (guztiz) bere gorputzarena, hor akusmatikak alderdi psikikoa azpimarratzen du, hor presentzia *delay* propioarekin bizi da-eta. Askotan, entzuketa aztertzean, "eskizofonia" terminoa erabiltzen da, eta, hor, "eskizo"k zatitzea edo bereiztea esan nahi du eta fonok ahotsari egiten dion aipu; hor, entzundakoaren edo sortutako soinuaren eta horren emanaldiaren arteko bereizketa agertzen da.

*"Bestearengana jotzen dut, beste horrek moldatutako ahots batekin: zugandik hurbil egoteko hitz egiten dut"*<sup>3</sup>.



Iris a Fragment instalazioa Azkuna Zentroan (2021)

Ahotsa osatzen duen ehundura soinu bihurtutako intimitatearena da, kanpoalde egindakoarena, hitzen eramailea den soinu-gertakaria, atzeraezina eta zerbaiti buruz zerbait esateko nolabaiteko borondatea duena. Esateko desiratik, Jane Bennettek esaten zuen bezala, gai dardartia gara, erresonantzian sartzeko, dardararazteko irrikaz. Bi azalera eta biak erregogorrrak, esatea eta gure buruari esatea inoiz ez da eraginkorra; nolana ere (eta zorionez) afektibotasunari dagokio, salatu egiten da (zaigu) eta adierazten da (zaigu) behin eta berriz. Itsutasunean, akusmatikan, opakutasun teknologikoetan eta ahots bat sortzen duen iturria ezkuta dezakeen guztian beti dago *delay* bat; pentsamendutik hitzera, hitzetik ahotsera, ahotsetik gorputzera... Denbora diferitu horretan, gorputzaren (des) agerpena sartzan da jokoan, ikusi nahi dugu ahotsa norbaiten ahotsa dela, zerbaiten soinua... "ikusi" nahi dugu soinu hori "existitzen" dela

---

3 Brandon Labelle (2014). *Lexicon of the mouth*, Ed. Bloomsbury Academic, Londres. 3. or.

(agertzen da, kokatzen da, gorputzen da, ezin da ezerezean egon). Irigarayk zioen bezala, soinu oro existitu daiteke, ager daiteke formaren inposiziorik gabe, soinua azaleratzen da hitzetik, gorputzetik, kodetik eta ingurutik harantz. Hau da, ahotsa, soinua, agertzearen eta ikusezin egotearen arteko zirrikitueta mugituko litzateke, akusmatizazioaren eta desakusmatizazioaren artean.

*"Ez dago egirik gure ezpainetan. Dena existitu daiteke. Denak merezi du trukatuazate, pribilegiorik eta arbuiorik gabe. Dena trukatzeko da, baina merkataritza gabe. Nola esan? Ezagutzen dugun hizkuntza hain da mugatua... Alabaina, hitz egiten du. Gure artean "gogorra" gailentzen da. Aski ondo ezagutzen ditugu gure gorputzen inguruak jariatortasuna maitatzeko"*<sup>4</sup>.

---

<sup>4</sup> Irigaray, Luce (1999). Ser dos. Ed. Paidós. Madril. 41. or.